

Basamortuan zehar, bizikleta lagun

Itsas-bidaia, mendi-igoera eta istorio liluragarri anitzen berri izan dezakezu abenturazaleek idatzitako egunerokoak irakurritz. Euskal Herrian horrelako kontakizunetan biziki trebe den idazlea dugu Jon Arretxe.

Bidaiari eta idazle basauriar (Basauri-1963) honek, TANEZROUFT basamortuan bizikletaz egin zuen zeharkaldia, egunez egun, ederki azaldu zuen Tubabu liburuan.

Urtarrila 16

10. eguna basamortuan

Sagutxo batzuek ez naute lasai lo egitera utzi. Usu iratzarrarazi naute harrabotsa eginez ene lo-zakuan sartu nahian.

Anitz gostatu zait gauero lokartzea, biziki akitua izanik ere, eta orenak eta orenak iragaten nituen inguruko paisaiatz gozatzen.

Gaur, 100 kilometro egin ditut. Harrigarria da, baina sekula baino tarte luzea beterik ere, nahiko ontsa heldu naiz indarren aldetik. Beharbada, helmugara hurbiltzen naizela sentitzeak ematen didan **kemenari** esker izanen da. Bihar dena ontsa baldin badoa, hau **Tanezrufteko** azken gaua izanen da.



Urtarrila 17

11. eguna basamortuan

Gaur **hareazko ekaitza** zer den jakin dut. Izutu naiz, egiazko beldurra. Bidea hareak estalia zuen eta arras larriturik segitu dut aitzina, bide bazterreko seinale **bakanei** jarraituz.

Azken kilometroetan giro txar hori **baretu** da. **Bordj-Mokhtar** herria begi-bistan agertzean ez dut emoziorik sentitu, heltzeko gogo baizik ez.

Biziki-biziki pobreak dirudite hemengoek. Bertako umeek, ni ikusi orduko, korrika hasi zaizkit gibeletik, gauza eske beti eta beti, eta horiek ezin **haizaturik**, lo egiteko lekuaren xerkatzen hasi naiz.

Herriko **botikariarekin** bi solas egin ditut, eta **ahalkerik gabe** ea bere etxean lo egin nezakeen galdegin diot. Biziki gisakoa izan da, eta berehala logela oso bat eskaini dit hemen geldin nadin.





Jon Arretxe Perez - Basauri, Bizkaia, 1963ko ekainaren 4a-
euskal idazlea da. Anitz liburu idatzi ditu eta bereziki
abentura narrazio hau: *Tubabu* (1994-Elkar).

Haur eta gazteentzat: *Hakuna Matata, Harresi*
handirantz, Beti iparralderantz...besteak beste,

idatzi ditu. Idazle eta kirol irakasle da, baina oroz gainetik bidaiari
amorratua.



Hiztegia hobekiago irakurtzeko

kemen: indar, adore

hareazko ekaitz: harea ekaitz/ hondar ekaitz

bakan: guti, urri

baretu: lasaitu

haizatu: uxatu, kasatu

botikari: farmazialari

ahalkerik gabe: lotsarik gabe

Bordj-Mokhtar: Algeriako herri ttipi bat

Tanezrouft: Algeriako basamortua



IRAKURKETA AZTERKETA

Ohartzen naiz

a- Zer da testu honen izenburua?

b-Zein liburutik hartua da?

c-Nork idatzia du?

d- Zer istorio mota da hau?

◇ azalpen testua

◇ abentura narrazioa

◇ polizia narrazioak

◇ egunerokoa

◇ olerkia

◇ antzerkia



Irakurketa azterketa (jarraipena)

e- Hautatu eguneroko horren idazteko Jonek jarraitu dituen arauak.

-Nola antolatua da?

◇ gaiaren arabera ◇ dataren arabera

-Zer kontatzen du?

◇ eguneko bizipenak ◇ atsekabeak, zoritxarrak, arazoak besterik ez

-Nor da eguneroko baten protagonista (pertsonaia nagusia)?

◇ norbera, gehienetan ◇ norberaren burasoak beti

-Zein pertsonatan idatzia da?

◇ ni, nik (singularreko lehen pertsonan) ◇ hura, haiek (hirugarren pertsonan)

-Hizkera (euskara) nolakoa da?

◇ konplikatua, ezin ulertuzkoa ◇ sinplea, ulerterraza (ulertzeko erraza)

f-Sinonimoak lot itzazu:

hurreratu	◇	◇	uxatu
kemen	◇	◇	hurbildu
baretu	◇	◇	ahalke
lotsa	◇	◇	lasaitu
haizatu	◇	◇	indar, adore

Ulertzen dut

a-Zenbat egun iragan ditu basamortuan Jon Arretxek?

b-Zer da basamortu horren izena?

c- Zergatik ezin du lasai lo egin?

d- Zergatik, bere ustez, holako fleitean heltzen da 100 kilometro eginik ere?

e- Erranaldiak buka itzazu:

-Bordj- Mokhtar begi-bistan agertzean

-Herriko umeak Jon ikusi orduko

-Herriko botikariari esker

f-Zer sentimendu adierazi du Jonek? Noiz? Zergatik?

◇ beldurra, larridura	◇ aspertura, nazka	◇ harridura
◇ gorrotoa, herra	◇ aitormena, esker ona	◇ presa

Eztabaidan batean parte hartzen dut

a- Jonek 11 egun iragan ditu basamortuan zehar bizikletaz. Zein dira holako bidaia baten alde onak eta txarrak?

Idazten dut

a- Gogoan duzun bidaia edo ateraldi baten 2 eguneko egunerokoa idatz ezazu.
Ez ahantz:

-data eta lekua idaztea

-lehen pertsonan idatz ezazu egun bakoitz gertatu zaizuna eta zuk sentitu duzuna.

-eguneroko hori apain ezazu marrazkiz edo argazkiz.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....